

Euskaraz
bizi
Lautadako
produktuak



EKONOMATUA

- Aguraingo Kale Nagusia 13 -

Lautadako Euskararen Komunitatea

ZER DA EKONOMATUA?

Ekonomatua **euskaraz sozializatzeko topagunea** da, baita Lautadako produktuak eta garaiko elikagaiak erosteko, saltzeko edota trukatzeko gunea ere. Aguraingo Kale Nagusia 13 behean kokatuta dago.

Hizkuntza ohiturak eta kontsumitzeko ohiturak aldatzen lagundu nahi dugu. **Euskaraz eroso** aritzeko gune bat eskaini nahi dugu, eta **bertako eta garaiko produktuak** erosteko erosotasuna ere eskaini nahi diegu herritarrei, Lautadako ekoizleekin batera.

Lautadako Euskararen Komunitateak sustatutako ekimena da, eta **Komunitate honetako kide diren bikote, familia eta norbanakoentzako zerbitzua da**, ez da ohiko denda bat.



ZERGATIK EROSI EKONOMATUAN?

-Lautadan **euskaraz bizitzeko beste aukera bat sortzen** lagunduko duzuelako, Lautadako Euskararen Komunitatearen parte izanik.

-Jango dituzuen elikagaien ekoizteko era eta nekazal errealitatea gertutik **ezagutzeko aukera** izango duzue.

-**Bertako nekazaritza** bultzatuko duzue eta ekoizle berriak egotea ahalbidetuko duzue, Lautadako elikadura burujabetzan zuen alea ipiniz.

-**Garraioak** eragindako kutsadura gutxituko duzue. **Zabor gutxiago** sortuko duzue.

-Guztien ongizaterako **ekonomia eraldatzailea** sustatuko duzue, Lautadako **ekoizleei prezio justua** ordainduz, lan duina sortuz.

-Lautadako Euskararen Komunitateari **autofinantzatzen** lagunduko diozue.

ZER AURKITUKO DUZUE?

Ekonomatuan **euskaraz bizitzeko gune bat** aurkituko duzue.

Egunero edota astero behar diren **produktuak eta garaiko elikagaiak** aurkituko dituzue. Balore etikoetan ekoiztuak eta nekazaritza ez-produktibistan oinarrituak. Lautadako barazkiak, eztiak, irinak, fruitu lehorrak, ogia, lekaleak, gaztak, kontserbak, arrautzak, hestebeteak, pattarrak, belarrak... Eta beste produktu batzuk ere: artisautza, garbiketa eta kosmetika produktuak... Gure web gunetik produktu freskoen eskaera egin ahal duzu eta ostegunetan jaso.

Ordutegi honetan egongo da irekita:

astearteetan 10:30-13:00, ostegunetan 17:00-19:30, larunbatetan 11:00-13:30

Ekonomatuan ekoizleen lana balioztatu nahi dugu. Eurekiko harremana zuzena da. **Haiek zehazten dute jaso nahi duten diru-saria.** Ekonomatuak ehuneko zehatz batzuk aplikatzen dizkie ekoizleek jarritako prezioei, bi helbururekin: ekonomatuaren gastuei aurre egitea eta Lautadako Euskararen Komunitatearen egitasmoak finantzatzea. **Ekonomatuan ez daukagu dirua irabazteko asmorik.**

ZER DA Lautadako Euskararen Komunitatea?

Irabazi asmorik gabeko elkarte bat da. Lan boluntarioan oinarritzen du bere jarduera, hau da, komunitatearen alde norberaren erabakiz lan egiten duten pertsonen lanean.

Euskara erabiltzen duten edo gehiago erabili nahi duten Lautadako kolektibo, establezimendu, lantegi, batzar administratibo, bikote, familia eta lagun-kuadrillen **bilgunea** da. Entitate eta talde horiek **artikulatzeko** gune izatea nahi dugu, elkarrekin norabide berean aritzeko. **Taldea** jartzen dugu erdigunean, hizkuntza-ohiturak ulertzeko eta aldatzeko sistema eraldatzaile gisa. Lautadako arlo sozial guztietan **euskararen erabilerarako baldintza egokiak sortu nahi ditugu.**

2017an eratu zen eta **mugimendu soziala** da; eragile eta iraunkorra izatea nahi dugu.

Komunitatearen helburuarekin bat egin eta euskara gehiago erabiltzeko konpromisoak hartzen dituzten entitate pribatu, familia, bikote eta lagun-kuadrillak **izan daitezke Komunitatearen kide.** Norbanakoak norbanako bazkide izan daitezke.



Kale Nagusia 13 behea
01200 Agurain (Arabako Lautada)
lautadan.euskaraz@gmail.com
605 29 09 51
www.lautadaneuskaraz.eus